

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
33	1.625	44	529
positibo berri	hildako EAEn	positibo berri	hildako
3.026	5	6.526	Eguneratu gabe
positibo guztira*	UCIn EAEn	positibo guztira	

*Hernanin 78 Astigarragan 24

«Gaurko egunez ere ateak irekita izango ditugu, beste modu batera bada ere, San Inazio egunaz gozatzeko»

San Inazio eguna da gaur, baina Covid-19ak sortutako egoera dela eta, ez du urteroko protagonismo berdina izango, eta ez da ohiko festarik ospatuko Santa Barbaran. Hala ere,

HERNANI SAN INAZIO

Beti izan da oso garrantzitsua uztaileko azken eguna Urumea bailaran, eta Santa Barbaran bereziki. Izan ere, gaur San Inazio eguna da, eta aurten gertatutako osasun alarmaren ondorioz, bertan behera gelditu da ospakizuna. Hori horrela, ez dira herri kirolak egingo, ez da Santa Barbara bidea girotuko duen trikitixarik izango. Hala ere, «San Inazio eguna presente izateko, beste modu batera bada ere», Saretxo Jatetxeak ateak irekita izango ditu, «mendi buelta egiten dutenei hamaiketako emateko, eta eguraldiaz gozatu nahi duenak, terrazan bazkaltzeko».

Saretxo Jatetxeak jakinarazi du, pena haundiarekin hartu zutela San Inazio eguna bertan behera gelditzen zela entzutea. «Oso festa berezia da San Inazio eguna. Goizean esnatzen zara, eta mendi buelta egiten duzu... Familiarekin zein lagunekin igarotzeko eguna da, eta jai giro paregabea egoten da urtero. Tamalez aurtengoa ez da hain berezia izango, baina guk zerbait egin nahi genuen».

Azken finean, aipatu moduan, oso egun berezia izaten da gaurkoa: «guretzat ere hain da garrantzitsua egun hau, pena haundiarekin gaudela festak egingo ez direlako; baina irtenbide bat eman diogu, festak ez ahazteko, nolabait».

Horrela, festak presente izateko, eta San Inazio egunaz beste modu batera gozatzeko, Saretxo irekita egongo da, bai hamaiketako emateko, baita bazkaltzeko ere, «menu bereziak» prestatu

baititu, hileko azken egunerako. «Modu honetan, nahi dugu jakitea hemen gaudela, eta nahiz eta San Inazioak bere horretan ez ospatu, egunaz goza daitekeela, Saretxon edo inguruan».

Ez da trikitilaririk izango aurtengoa Saretxon: «urtero egoten dira trikitia jotzen hemen, eta terraza girotzen, baina gaur ez da musikarik izango. Segurtasuna bermatze aldera hartu dugu erabaki hau; izan ere, musikak, festa giroa erakarriko du, eta distantziak ez dira mantenduko, normala den bezala».

Menu berezia, gaurko eguna ospatzeko

Saretxok menu berezia sortu du gaurko, festak ezin badira egin ere, «ez ahazteko San Inazio eguna dela, gu ere hemen gaudela eta noski, ohitura ez galtzeko». Beraz, gaurko eguna beste modu batera gozatzeko aukera eskaini du Saretxok, sortu duen menu bereziarekin: «jada erre-berba dexente dauzkagu, eta espero dugu jende gehiago etortzea», azaldu dute.

Menua, hiru plateraz osatutakoa da: lehenengoa, entsalada berezi bat, eta arroza almeja eta langostinoekin; bigarrena, berri-berri, txekor karrilerak eta hegaluzea; eta hirugarrena, postrea. «Pantxineta jarri dugu berrikuntza moduan, baina beste hainbat postre ere aukeran daude». Jakinarazi dute, menuak 25 eta 30 euro bitarteko prezioa izango duela. Gainera, «prebentzio neurriak erabiliko dira herritarren segurtasuna bermatzeko». Eta Saretxok gonbitea luzatu du: «etorri eta goza dezagun San Inazio egunaz». **K**



Menu berezia eskainiko du gaurkoan Saretxok, San Inazio eguna «oroitzeko» asmotan.



Aurtengoa ez dira herri kirolak egingo, egoerak hala behartuta.

**ANTZIOLA, 3**
943 55 17 91
HERNANI

ERRIOGUARDA-ENEA
J A T E T X E A
BIHAR, EGUERDIAN,
ETA
ABUZTUAN
IREKITA
Iturriaga kalea, 10. Hernani
Tel: (943) 33 02 91

San Inazio egunean

MENU BEREZIA

Zatoz, egun eder eta pasako dugu etal

COVID-19aren ondorioz
aurten ez da trikitilaririk egongo

Marraka-Enea baserria,
Santa Barbara auzoa, 92
943 55 64 81 - 943 55 46 75



EGURALDIA
GAUR Haizea mendebaldetik edo ipar-mendebaldetik finkatuko da kantauri isurialdean, eta tenperatura asko jaitsiko da bertan, kostaldean bereziki. **Min. 20° / Max. 28°**

BIHAR Fronte txiki bat iritsiko da, eta haizea ipar-mendebaldetik finkatuko da. Ondorioz, tenperatura 25 gradutik behera geratuko da kostaldean. Lainotuta egongo da zerua. **Min. 18° / Max. 24°**

ARGITARATZAILEA
DOBERA
EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarraigako Udala

Donostia Auzo Udala

GOIZETAKO UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarra) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarra) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarra) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **Odriozola** Idiazabal, 18 (Urnieta) **943 334014** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Xaguxarreko eta kiroldegiko udalekuak, abuztuan martxan

Erabaki hori hartu dute Udalak eta antolatzaileek prebentzio neurri guztiak betez.

ASTIGARRAGA UDALEKUAK

Xaguxarreko udalekuak eta kiroldegiko jolas txiki eta multikiroleko abuztuko txandak martxan jarriko direla erabaki dute Udalak eta antolatzaileek.

Joan den uztailaren 18an Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Departamentuak udalekuak ixteko gomendioa egin zien udalei. Horren ondorioz, gomendio horri jarraituz, Astigarraigako Udalak erabaki zuen Xaguxarren udalekuak, kiroldegiko jolas txiki eta multikirola, eta Gaztelekuko jarduerak bertan behera uztea.

Bertan behera utzi ondoren, bizpahiru egunetara, herri gutxi batzuetan erabaki zuten udalekuak berriz martxan jartzea, nahiz eta Osasun Publikoko Departamentuak uztailaren



Xaguxarrek antolatzen dituen udalekuak aurrera eramango dira abuztuan.

22an berriz gomendioa eman udalekuak ixteko. Gomendio horretan adierazi zuen 10 egunetara berrikusiko zituztela gomendioak eta neurriak.

Eusko Jaurlaritzak uztailaren 29ko aldizkari ofizialean argitaratu du Covid-19a zabaltzea saihesteko neurrien inguruko agindua, arloz arlo prebentzio neurriak zehazten dituena.

Agindu horren 3.22 atalaz zehaztu du, haur eta gazteen-tzako aisialdiko jarduerak egin

ahal izango direla, beti ere arlo horretarako ezarritako prebentzio neurriak betez.

Hori guztia kontuan hartuta, Astigarraigako Udalak, Xaguxarrek eta kiroldegia erabaki dute, Xaguxarren abuztuko udalekuak eta kiroldegiko jolas txiki eta multikiroleko abuztuko txandak martxan jartzea.

Uztaileko txandetan bezala, abuztuko txandetan udalekue-tarako ezarritako prebentzio neurri guztiak beteko dira. **K**

Buruz Burukoaren atarikoak hasiko da bihar Galarretan, bi partidurekin

Lehendabiziko partiduan Juanenea eta Aizpuru III arituko dira aurrez aurre, eta hirugarrenean Larrañaga eta Zaldua.

HERNANI ERREMONTA

Buruz Buruko Txapelketa ate joka dugun honetan, bihar, larunbatarekin, Galarretak ateak zabalduko ditu, astebeteko geldialdiaren ondoren. Dena den, nahiz eta ateak itxita egon ikusleentzat, frontoian Buruz Burukoaren atarikoan sartzeko partidua jokatu dira, modu pribatuan. Bost erremontista aritu dira, bi multzotan banatuta.

Atarikoaren aurreneko multzoan, Zaldua II ez da aritu azkenean, eta Aizpuru III Labaka gairitu zuen. Honela, azpeitiarra hurrengo fasera sailkatu da,



Juanenea bihar estreinatuko da Buruz Burukoan.

eta bertan Juanenea eta Zubiri izango ditu aurkari.

Bigarren multzoan, Zalduak eta Urrutia II elkarran aurkako partidua jokatu zuten atzo, eta Zaldua pasa da hurrengo fasera; Etxarri kanpoan geratu da. Larrañaga eta Seguiolaren aurka ariko da Zaldua orain.

Honela, larunbateko jaialdian bi buruz buruko partida eta binakako bat jokatu dira.

Juanenea eta Aizpuru III arituko dira lehenengo partiduan, eta Larrañaga Zalduaren kontra, hirugarrenean. Binakako estelarean, berriz, Ansa II eta Barretxea IV, Urrutia eta Endikaren kontra ariko dira.

COVID-19aren osasun krisiaren ondorioz, gogorazi dute musukoa derrigorrezkoa dela frontoiko edozein gunetan, bai zutik, eta baita eserita ere. **K**

Kontzentrazioa Plazan egingo da gaur

HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK

Hileko azken ostiralero bezala, Plazan egingo dute kontzentrazioa gaur, Hernaniko preso eta iheslarien senide eta lagunek deituta. 20:00etan izango da, eta bat egiteko deia luzatu dute.

2007-2008an jaiotako mutilei, deialdia

HERNANI ESKUBALOIA

Hernani Eskubaloi Taldeak, 2020-2021 denboraldirako kaptazio kanpainaren barruan, dei berezia egin nahi die eskubaloiari aritu nahi duten 2007-2008ko mutikoei. Hurrengo denboraldian arituko diren taldeak osatzen ari dira, eta une honetan infantil kategoria hori da jokalaria premia berezia duena. Gainontzeko kategorietako ere, neska-mutilak ongi etorriak izango dira klubean. Izenematea www.hernanieskubaloia.eus webgunean egin behar da.

Atletismoko udalekuak bertan behera uztea erabaki du Hernaniko taldeak

HERNANI ATLETISMOA

Hernaniko atletismo taldeak udarako txandak bertan behera uztea erabaki du, ohar baten bidez jakinarazi duenez. «Eguneko egoketaren harira, eta azken egunetan bizitzen ari garen okertzearen ondorioz, aurtengo udarako txandak bertan behera uztea erabaki dugu. Erabaki hau guztion honerako hartu dugu, osasuna erdigu-nean jarritz eta guztion zaintza bermatuz. Barkatu eragozpenak eta hurrengo urtean ikusiko dugu elkar», dio oharrak.

8 talde osatzea du helburua Hernanik

HERNANI BOLEIBOLA

Hernani Kirol Elkarteko boleibol atala datorren denboraldiari begira dago jadanik, eta izenematea martxan jarri dute taldeko arduradunek, 656 73 19 29 telefono zenbakian. Iaz sei talde izan ziren txapelketa ezberdinetan parte hartu zutenak, eta 2020-2021 denboraldirako zortzi talde osatzea da helburua. Beti bezala, neskek izango dute pisu gehien, eta haien kasua, sei talderekin parte hartzea espero dute. Mutiletan, berriz, senior mailako taldea izango da bigarren urtez segidan, eta helburua da infantil edo kadete mailako talde bat osatzea datorren denboraldirako.

Pilota eskolan, izenematea zabalik

GOIZUETA PILOTA

Epea zabalik dauka Umore Ona kirol elkarteak, pilota eskolan izena emateko, datorren denboraldirako. Bost urtetik gorako neska-mutil guztiek daukate aukera, abuztuaren 2ra arte. Horretarako, 645 056 163 telefonora deitu behar da, edo [WhatsApp](https://www.whatsapp.com) idatzi.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

I. URTEURRENA

Maria Dolores Amonarraz Etxeberria

Ez zaitugu ahaztuko

ETXEKOAK

Hernanin, 2020ko uztailaren 31ean

IRAGARKI MERKEAK

Etxebizita bat alokatzen da Latxunbe Auzoan. 3 logela. 750 euro hilean. **Deitu 650 14 99 60**
Pertsona bat behar da asteburuetan prentsa-kioskoan lan egiteko. Euskara jakitea ezinberstekoa. **Deitu 688 69 40 34**
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**